

Felix Ormazabal Askasibar

Arabako diputatu nagusia

Sozietateen zerga berria

■ Gaur, ostiralez, Arabako Biltzar Nagusietan eztabaidatzen da lanpostuak sortzen lagundu eta inbertsioa bultzatzeko helburua duen *Sozietateen gaineko Zergaren* eraberrikuntzarako proiektua, gure ekonomi bilbaduraren oinarria osatu eta lanpostu berriak eta gizarte aberastasun gehiago sortzeko ahalmen gehiena daukaten enpresa txiki eta ertinetan eragin bereziena duena.

Eraberrikuntza hau, nolabait, 1991. urtean Ezarpen Pertsonalari buruzko legearekin ekin zitzaion zerga-berrikuntza prozesuaren azken urratsa da.

Ez da gaurkoa merkaturaren nazioarteko globalizazioarako eta ekonomi integratzioko prozesua. Honek herriarren eta enpresen fiskalitatearen eraberrikuntza bat eskatzen zuten, lehiakortasuna, teknologi berrikuntza eta enplegua bultzatzeko helburuaz. Europako tributazioaren joera bateratzaile berrietan sartze honek presio fiskal orokorra ez gehitzea eta, zeharkako zergatara aldatuz, zuzeneko presio fiskala gutxitzea eskatzen du. Guzti hori, zerga-iruzurraren aurkako borroka eraginkor eta planifikatua ahaztu gabe.

PFEZaren eraberrikuntza, azaldutako ildoetatik, aurrera pausu handi bat zen fiskalitate pertsonala enpresen fiskalitate hurbiltzearen aldetik. Modu horretan, PFEZaren tarifak murrizten ziren: % 20tik % 18ra kotizazio taulen behiko muga eta % 56tik % 53ra goiko muga, % 50ean ezartzen duen gutxiketa berri bat lortzeko konpromezuarekin.

Sistema fiskalaren eraberrikuntzaren bigarren partea 1993. urtean burutu zen. Europako baterakuntza fiskalaren ondorioa zen BEZaren eta zerga berezien legea indarrean jarri zelarik. Horren ondorioz, zeharkako presio fiskalaren gehikuntza bat gertatu zen, % 16ko tasetara helduz.

Ekonomi Itunaren 14. artikulua, zergak Foru Aldundiet bakarrik ordaintzen dizkieten enpresentzat eta, Estatuari eta Euskal Herriari batera ordaintzen dietelarik, beren sozietate egoitza azkenengo honetan daukaten entitateentzat, baldin eta beren eragiketa guztien % 75a edo gehiago lege arrunteko lurraldean egiten ez badute, itundutako eta beregintasunez araututako zerga bat bezala definitzen du Sozietateen gaineko Zerga.

1988az geroztik gure Foru Aldundiek Sozietateen buruz Estatuaren gainerakoak bestelako hainbat arautegi ezarri dituzte, hala nola inbertsiorako zerga-pizgarriak 1988an, balantzeen eguneraketak 1990ean eta ekonomi iharduerarako bultzapena 1993an, zeinaren barruan zerga-oporraldiak deituri-koak jasotzen ziren. Honek, ia 50.000 langile dituzten 3.000 sozietate baino gehiagotan eragin positiboa sortzen zuen.

Herrialde garatuak problema berriak garrantzitsuenak langabezia da. Horregatik, lehenitasuneko da enplegua sortzea eta enpresen teknologiko eguneraketa, merkatu berrietarako sarbidea sortzea eta lanpostu egonkorra daukaten pertsonen kopuruaren gehi-

kuntza bideratzen duten neurriak hartzea.

Ahalegina

Arautzeko ahalmena dugun garrantzirik handieneko Zerga bati buruzko Foru Arau Proiektu baten aurrean, Foru Aldundietako bakoitzak ahalegin handia egin du oinarriko aurreproiektu batez adostasuna lortzeko. Aldundien Gobernu Kontseilu guztiei eta, hortik aurrera, hiru Lurraldeetako Biltzar Nagusiei aurkezteko.

Proiektua garatuz joan den prozesu guztian zehar, Arabako Foru Aldundien negoziatzioren martxaren berri eman zaie foru gobernuo partaideei.

Eusko Alkartasunak hasieratik Zergaren eraberrikuntza proiektuaren alde egiteko horondatea agertu zuen. Argi eta garbi ikusi genuena zera zen: Alderdi Sozialista ez zegoela ados proposamenarekin, eta ez zuela ados egon nahi. Hauda: Araban ez zuela nahi adostasunik honen inguruan. Alderdi Sozialistak, EAJ-PNVk Madrilen PPrekin egin duen paktuaren aurrean, Euskadiko Autonomi Elkartearen mailan, herri honetan, komunitate honetan, eta Lurralde hauetan, gobernabilitateak Alderdi Sozialista kontutan hartu behar duela frogatu nahi izan du.

Akordioa

Planteatutako egoeraren aurrean, Biltzar Nagusietako alderdiekin, HBrekin salbu, elkarriketak hasi ziren. Bai Unidad Alavesak, baita Partido Popularrek ere, gure proposamenei zabalik zeudela adierazi zuten, bi alderdiekin -hasieran Araban eta geroago, paktua Partido Popularra

hedatuz. Bizkaian eta Gipuzkoan - lortutako akordioetan mamitu direlarik proposamen horiek.

Azpiramarkatu beharra dago Unidad Alavesarekiko eta Partido Popularrekiko negoziatziok ez zirela hasi harik eta PSOEek, gobernuo kideak, Gipuzkoako eta Arabako Aldundietako Kontseiluetan Arau proiektuen aurkako botoa eman zuen arte, proiektuok Euzko Alderdi Jeltzalearen eta Eusko Alkartasunaren baiezkoa lortu zutelarik. Bizkaian Alderdi Sozialista abstenitu egin zen.

Momentu honetan, eta inkoherentea badirudi ere, Araua Alderdi Jeltzalearen, Eusko Alkartasunaren, Partido Popularren eta Alderdi Sozialistaren baiezko botoekin onartu da Bizkaiko eta Gipuzkoako Biltzar Nagusietan.

EAJ-PNVren jarrerak, hasieratik, hiru Foru Aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren arteko Zerga-Koordinatzioko Organoan itundutako enpresentzako ezarpenaren eraberrikuntzaren izpiritua gorde du, eta Biltzar Nagusietan Sozietateen Zergari buruzko foru araututako ahalik eta euskarririk zabalena lortzen saiatu da. Izandako elkarriketen ondorioz, Sozietateen gaineko Zerga berriak hiru Lurralde Historikoetarako enbor berdina izango du.

Sozietateen gaineko Zerga berriak Arabako Foru Aldundiak Lurralde honetako ekonomia bultzatzeko, orain bizi dugun une itxaropengarri hau sendotuz, eta arabar guztien ongizatea lortzeko egiten duen etorkizuneko apostu bat da. ■

Joxe Mari Ostolaza



Fernando Txapartegi

Txaparro. Gipuzkoako Irungoa. Mugakoa. Irundar dezente lez, bikiingoengana hurbildua. Hondarribira bizitzera joan berria omen zela alegia. Nik dakidala behintzat, ezagutzen ez nuena. Baina nor daki, inguru horietatik hainbeste joan-etorri egina duguneg, agian ezaguna genuen. Baina berdin dio. Sanmartzialetako alardean bihotzekoak, infartuko jota, hila. Eta aitortu behar du, niretzat, gaztetan, pipertoz jositako ibilbidean ikusirik. Alardea Francorekin lotutako zerbait zela, hainbesteraikoa baitzen gure historiari buruzko informazio eza eta orduko antolatzaleen Jeneralaren agintearekiko menekotasuna. Memoria kontua.

«Hildako bat ba omen dago», zioen informatzaleak, eta horrek nere burura zirkulo erromatarrean herritarrak eskutan era askotako makilak zituztela oihukatu lehoietara, lehoietara... irudia ekarri zidan. Erromatarra izan ezik, ezin uier zitekeela hura, omen zioen garaiko kantauk. Sutaraa, sutaraa... oihukatzen omen zuen herriak Inkisizio garaian moeta ugari harri kozkorrek eskutan zituztela. Eta irundarrentzat soilik hain zirratsua omen den Sanmartzialetako Alardean irundarrek eskopetak zituztela zer oihukatu zuten, zergatik, zeren alde, zeinen aurka eta zertarako, irundarrek soilik erantzun omen dezaketenez, irundarrek adostu azalpenaren zain geratzen naiz. Viva San Marcial.

Txillardegia



Etsipenak

Lerro hauek Nafarroan idazten ditudan unean, ETAk eskainitako mienaren amaia da mintzagai nagusia. Etendura nondik eta zelan gertatuko ote den bihurtu da kezka larri eta nagusia; denen gogoan baitago IRarena Manchester-en nola mamitu zen.

Erabakari buruzko iritzirik izan dira, nolana ere, ezin adierazgarriago. Etorkizunean Euskal Herri Askatua inolaz ere irents ezin dezaketenek berriro ere jo dute gezurra esatera: ETAk «hitzeari eutsi» nahi diola zabaldu dute bazterretan.

Ez dute aitortu nahi izan Madrilek ez duela *Auto-Determinazio* hitza aipatu ere bere erantzunean. Hots, EHko borroka lartzaren giltzarria A.D. eskubide horren ukaera da.

Espainiak bultzatzen duen proiektua ez zaigu interesatzen, eta Frantziak eskaintzen duena ere ez. Txetxeniarrei Moskuk eskaintzen diena interesgarri ez zaien bezalaxe.

Ezin argiago aldarrikatzen dugu ez garea espainol senditzen, eta ez dugula izan nahi. Bi mende luze hauetako gertaerak ondorio horretara eramane gaituztela; eta, eskubidea eta nahia ditugunez, libro izan nahi dugula, aske, lokabe, geure buruaren jabe.

Euzko partidu errejonalistak, espainiar legetasuna gorapatzu, Estatuaren defendatzaile sendo agertu dira; milagarren aldiz Madrileko imperialistekin esku esku.

Bake-giroa, horretara, errepika antzu bihurtu da. Bakea ez baita jadanik eraikiko, A.D. eskubidearen aitopen osoaz bestaldetik baizik.

L A P H I T Z A

